



## IRURTZUNGO UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN DE IRURTZUN

Irurtzunen, bi mila eta hogeita biko urriaren 21ean, arratsaldeko 19:30ak direnean, aldez aurretik legeak agintzen duen moduan deituta, Irurtzungo udaletxeko osoko bilkuren aretoan udalbatza elkartu da ohiko bilkura egiteko, Aitor Larraza Carrera jauna alkate - lehendakaria buru dela. Bertan izan dira Udalbatzako zinegotzi hauek:

*En Irurtzun, siendo las 19:30 horas del día 21 de octubre de dos mil veintidós se reúne en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial la Corporación del Ayuntamiento de Irurtzun al objeto de celebrar sesión ordinaria, previamente convocada en forma legal, bajo la Presidencia del Alcalde - Presidente, Don Aitor Larraza Carrera, con la asistencia de los concejales y las concejalas de la Corporación que se enumeran a continuación:*

Agurtzane Garijo Peralta andrea.

*Doña Agurtzane Garijo Peralta.*

Ana Balda San Juan andrea.

*Doña Ana Balda San Juan.*

Ana Santander Lizaso andrea.

*Doña Ana Santander Lizaso.*

Antonio Ollakarizketa Elizondo jauna.

*Don Antonio Ollakarizketa Elizondo.*

Eduardo Murugarren Frances jauna.

*Don Eduardo Murugarren Francés*

Joseba Royo García jauna.

*Don Joseba Royo García.*

Naiara Gartzia Royo andrea.

*Doña Naiara Gartzia Royo.*

Enrique Tenorio Ruiz jauna.

*Don Enrique Tenorio Ruiz.*

Luis Enrique de la Calle Moreno jauna.

*Don Luis Enrique de la Calle Moreno.*

Ezin etorria adierazi du Domingo Goñi Sarasola jaunak.

*Excusa su asistencia Don Domingo Goñi Sarasola.*

Idazkari lanetan, udalbatzarena, Eguzkiñe Aiesa Andres andrea.

*Asistida la Corporación por mí, la Secretaria Municipal, Doña Eguzkiñe Aiesa Andres.*

Saioari 19'30ean eman zaio hasiera.

*Se da inicio a la sesión siendo las 19'30 horas.*



**1.- 2022ko abuztuaren 2an ospatutako Osoko Bilkuraren aktaren onarpena, hala badagokio.**

2022ko abuztuaren 2ko osoko bilkuraren aktari buruzko eztabaidan hitzartzerik izan gabe bozkatu da, eta aho batez onartu da.

**2.- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, 2022/205etik – 2022/267 ebazpenera.**

Alkatetzaren ebazpenei buruz hitz egiteko txanda hasi da. Ebazpen horien zerrenda bilkurako gainerako dokumentazioarekin batera bidali zen, eta Enrique Tenorio jaunak honako galdera hauek egin ditu:

Lehenik eta behin, 2022/215 Ebazpenari buruz galdetu du. Ebazpen horren bidez, Nour el Huda meskitari OHZ ordaintzetik salbuestea aitortzen zaio. Alkateak erantzun du meskitak salbuespen - eskaera egin zuela, dokumentazio gehiago eskatu zitzaie eta, gaia aztertu ondoren, salbuespena dagokiela ondorioztatu zela.

Navarra Sumako udal - taldeak jarraian 2022/236 Ebazpenaren inguruan galdetu du, zeinaren bidez zehapen - espedienteen instruktorea izendatzen baita. Alkateak hitza eman dio idazkariari azalpenak emateko. Idazkariak erantzun duenez, zehapenen kudeaketa Geserlocal enpresaren esku uztean, ad hoc egindako instruktore bat izendatzeko eskatu zen hemendik, eta, beraz, idazkaria izendatu zen instruktore, aurretik ere eginkizun horiek betetzen zituelako.

Galdera gehiagorik ez dagoenez, Udalbatzak jakin du zeintzuk diren 2022/205 ebazpenetik 2022/267

**1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión plenaria del día 2 de agosto de 2022.**

*Se procede a someter a debate y votación el acta de la sesión plenaria del día 2 de agosto de 2022, que sin toma de palabras queda aprobada por unanimidad.*

**2.- Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía, desde la 205/2022 hasta la 267/2022.**

*Se abre el turno de palabras sobre las resoluciones de alcaldía cuya relación se envió junto al resto de documentación de la sesión, y, don Enrique Tenorio, formula las siguientes preguntas:*

*En primer lugar, pregunta acerca de la resolución 215/2022, por la que se reconoce la exención del pago del IBI a la mezquita Nour el Huda. El Alcalde responde que la mezquita hizo la petición de exención, se les requirió más documentación y, estudiado el tema, se concluyó que les corresponde la exención.*

*Pregunta el grupo municipal de Navarra Suma a continuación por la resolución 236/2022, por la que se hace el nombramiento de persona instructora de expedientes sancionadores. El Alcalde cede la palabra para la explicación a la Secretaria, quien responde que, al encomendar la gestión de las sanciones a Geserlocal, desde aquí se solicitó un nombramiento de persona instructora hecho ad hoc, por lo que se nombró a la Secretaria como persona instructora, por ser la persona que venía ejerciendo esas funciones.*

*No habiendo más preguntas, la Corporación se da por enterada de las resoluciones de alcaldía 205/2022 a*



ebazpenera.

267/2022.

**3.- 2021eko kontu orokorraren onespena, hala badagokio.**

**3.- Aprobación de la Cuenta General de 2021, si procede.**

Alkateak gaiaren sarrera egin du, kontu - hartzaileak Kontuen Batzorde Berezian emandako azalpenaren xehetasun batzuk azpimarratuz:

*El Alcalde introduce el punto, recalcando algunos detalles de la explicación dada por el Interventor en la Comisión Especial de Cuentas:*

2021ean aurrekontuaren betearazpena 2.302.486,86 eurokoa izan zen, eta gastuak, guztira, 2.278.712,51 eurokoak izan ziren.

*El cierre de la ejecución del presupuesto en 2021 fue de 2.302.486,86 euros y el total de gastos fue de 2.278.712,51 euros.*

Udalak 2021ean gastatutako 100 eurotik 47 bideratu dira langile - gastuetara, 35 gastu arruntetara eta 18 inbertsioetara.

*De cada 100 euros gastados por el Ayuntamiento en 2021 se han destinado 47 a gastos de personal, 35 a gastos corrientes y 18 a inversiones.*

Berankortasunari dagokionez, nabarmendu behar da urtero 15.000 euro inguru daudela Zirkulazio Zergatik eratorritako berankortasunean. Kontuen Batzordearen ondoren, azterlan bat egin da eta Trafiko Departamentuarekin hitzarmen bat egitea proposatzen da, Udalak ibilgailuen bajak ikusi ahal izan ditzan. Trafiko Saila ez dator bat proposamenarekin, baina horretan lan egingo da.

*Respecto a la morosidad, destacar que anualmente hay aproximadamente 15.000 euros en morosidad derivados del Impuesto de Circulación. Tras la Comisión de Cuentas, se ha realizado un estudio y se propone realizar un convenio con Tráfico, para que desde el Ayuntamiento se puedan ver las bajas de vehículos que se lleven a cabo. El Departamento de Tráfico es reacio a la propuesta, pero se trabajará en ello.*

Diruzaintzako behin betiko gerakina 514.313 eurokoa da.

*El remanente de tesorería definitivo es de 514.313 euros.*

Zorpetze - maila zero da.

*El nivel de endeudamiento es cero.*

Gaia bozkagai jarri da, hautetsi batek ere bere hitz - txanda erabili ez duelako. **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Se somete el asunto a votación sin que ninguna persona electa haya hecho uso de su turno de palabras, siendo que **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- 2021eko kontuen kitapena onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar el cierre de cuentas de 2021.*

BIGARRENA.- Irurtzungo Udaleko kontuhartzailetzari

*SEGUNDO.- Informar a la Intervención del*



akordio honen berri ematea.

HIRUGARRENA.- Onartutako 2021eko kontuaren espedientea Nafarroako Gobernuko Landa Garpen, Ingurugiro eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

**4.- Partzialki atxikitzea, hala badagokio, Enplegu Publikoaren Behin-behinekotasuna Murrizteko Presako Neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze-prozesuak egiteko neurriei buruzko uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluari.**

Alkateak idazkariari eman dio hitza, eta idazkariak in voce eragozpenak jarri dizkio egonkortze - prozesuari. Bere ustez, zuzenbidearekin bat ez datorren prozesua da eta, gainera, giza ikuspuntutik ondoez handia eragiten ari da. Azaldu duenez, Foru Hobekuntzaren 49. artikulua Nafarroari ematen dio funtzio publikoaren arloko eskumen eskusiboa, eta, beraz, Foru Komunitateak errespetatu egin behar ditu oinarritzko legeriak ezartzen dituen oinarritzko eskubide eta betebeharrak, eta autonomia izango du gainerakoa kudeatzeko. Abenduaren 28ko 20/2021 Legea oinarritzko lege bat da, eta ezartzen du enplegu publikoko behin - behinekotasuna gehienez ere %8ra jaitsi behar dela 2024ko abenduaren 31 baino lehen. Hortik aurrera, Foru Komunitateak egonkortzea beste edonola egin zezakeen, imajina zezakeen beste edozein modutan, foru - araudiari egokituta (edo, behintzat, pixka bat gehiago), Madrilek emandako aginduak begi itxietan aplikatu gabe. Nafarroako lanpostu guztiak arautzen dituen Funtzio Publikoan Sartzeko Erregelamenduak dio enplegu publikora sartzeko arau orokorra oposizioa dela, eta salbuespena, berriz, lehiaketa - oposizioa; ez du

*Ayuntamiento de Irurtzun de este acuerdo.*

*TERCERO.- Enviar el expediente de cuentas de 2021 aprobado al Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra.*

**4.- Adhesión parcial, si procede, al Título II de la Ley Foral 19/2022, de 1 de julio, de medidas para la realización de los procesos de estabilización derivados de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.**

*El Alcalde cede la palabra a la Secretaria, quien emite reparo in voce al proceso de estabilización. Dice que, bajo su punto de vista, es un proceso que no se ajusta a derecho y que, además, está generando alto grado de malestar desde el punto de vista humano. Explica que el artículo 49 del Amejoramiento otorga a Navarra competencia exclusiva en materia de función pública, por lo que la Comunidad Foral debe respetar los derechos y deberes fundamentales que establezca la legislación básica, teniendo autonomía para gestionar lo restante. La Ley 20/2021, de 28 de diciembre es una ley básica que establece que debe bajarse la temporalidad en el empleo público a un máximo del 8% antes del 31 de diciembre de 2024. De ahí en adelante, la Comunidad Foral podía haber llevado a cabo la estabilización de cualquier otra manera que hubiera sido capaz de imaginar, ajustándose (o, al menos, un poco más) a la normativa foral, sin aplicar a ojos cerrados los mandatos emanados de Madrid. El Reglamento de Ingreso a la Función Pública de todos los puestos de Navarra dice que la regla general para acceder al empleo público es la oposición, y la excepción el concurso - oposición; no contempla meros*



lehiaketa hutsa kontenplazten. Alta, egonkortze - prozesu honekin, aldi baterako plazen %80 baino gehiago (aldi baterakoak dira, lehen oposizioak deitu ez zituztelako, logikoki) lehiaketara atera ziren, eta Irurtzunen, zehazki, plazen %100a.

Gaineratu duenez, lehiaketa horiek ez daude merezimendu - sorta zabalago batean oinarrituta, baizik eta ia soilik antzinasunean, eta honekin enplegu publikora sartzeeko berdintasunaren oinarritzko eskubidea jasotzen duen Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikulua urratzen da. Hori Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak errepikatzen du urte luzez.

Zehazki, Auzitegi Gorenarenaren, Administrazioarekiko Auzien Hirugarren Salaren, 7. atalaren, 2005. urteko 8. Epaia aipatzen du (Rec. 2295/2002). Horren arabera, kargu publikoetara iristeko prozeduraren arauak, deialdiak barne, orokorrean eta abstraktuki ezarri behar dira, eta ez erreferentzia indibidualizatu eta zehatzen bidez. Idazkariak uste du egonkortze - prozesu honetan denak direla erreferentzia indibidualizatuak eta zehatzak; izan ere, legeak plazak egonkortzeaz eta ez pertsonak egonkortzeaz hitz egiten duen arren, errealitatea da pertsonak egonkortzen ari direla, eta ez plazak, antzinasuna beti izaten ari baita baloratuena (gutxienez, % 60an). Beraz, ezkutuko prozedura mugatua da, antzinasunaren pisuak emaitza aurrez baldintzatzen duena, beraz, argi dago antzinasuna duten pertsonak soilik eskuratu ahal izango dituztela plaza horiek, eta hori Konstituzioaren aurkakoa da.

Hori esanda, idazkariak esan du bere ustez lege hau Konstituzioaren aurkakoa den arren, gaur egun oraindik ez dela egoera hori deklaratu, eta, beraz, lege hori

*concurso. Sin embargo, con este proceso de estabilización, más del 80% de las plazas temporales (que son temporales por no haber convocado oposiciones antes, lógicamente) salen a concurso y en Irurtzun, en concreto, el 100% de las plazas.*

*Añade, además, que estos concursos no están basados en un abanico más amplio de méritos, sino prácticamente únicamente en la antigüedad, se vulnera el artículo 23.2 de la Constitución Española, que predica el principio fundamental de igualdad de acceso al empleo público. Esto viene siendo reiterado por la jurisprudencia del Tribunal Constitucional y del Tribunal Supremo durante largos años.*

*En concreto, hace referencia a la Sentencia 8ª, Rec. 2295/2002, del Tribunal Supremo, Sala Tercera de lo Contencioso-Administrativo, Sección 7ª del año 2005, que dice textualmente que “las reglas el procedimiento de acceso a los cargos públicos, entre ellas las convocatorias, se establezcan en términos generales y abstractos y no mediante referencias individualizadas y concretas”. En este proceso de estabilización, entiende la Secretaria, son todo referencias individualizadas y concretas, porque a pesar de que la ley habla de estabilizar plazas y no personas, la realidad es que se estabilizando personas y no plazas, porque siempre está siendo lo más valorado la antigüedad (en, al menos, el 60%). Se trata, por tanto, de un procedimiento restringido encubierto, en el que el peso de la antigüedad predetermina el resultado y, por tanto, es evidente que sólo las personas con antigüedad van a poder acceder a estas plazas, y esto es inconstitucional.*

*Dicho esto, la Secretaria dice que, a pesar de que bajo su punto de vista esta ley es inconstitucional, a día de hoy todavía no ha sido declarada esta circunstancia,*



aplikatu behar dela. Ohartarazten du ezen, pertsonen finkotasuna emanez gero, eta ondoren Konstituzio Auzitegiak esaten badu prozesua konstituzioaren aurkakoa dela, administrazio publikoek benetako arazoak izango dituztela kalte - ordainei aurre egiteko orduan. Hala ere, litekeena da egoera hori ez gertatzea, interes ekonomiko handiak daudelako jokoan.

Gai - zerrendako puntuari dagokionez, nahiz eta proposatzen den foru legea asko hobetu daitekeen, haren aplikazioa nabarmen hobetzeko neurriak proposatzen dira osoko bilkuran:

Lehenik eta behin, 6.2 artikuluari atxikitzea salbustea proposatzen da, 19/2022 Foru Legeak esaten duelako epaimahaiak deialdiak argitaratu ondoren finkatuko direla baina, Irurtzuni dagokionez, erraza da deialdiak argitaratu aurretik epaimahaiak izendatzea, edozein hautagairi erraztasunak emateko hura osatzen duen pertsonaren baten abstentzioa proposatzeko (edo errekusazio - kasuetarako), eta, horrela, gainera, alferrikako denbora- eta funtzio - luzapenik ez gertatzeko.

Bigarrenik, 6.3 artikuluan aldaketa txiki bat egitea proposatzen da. Horren arabera, argitaratu beharreko argitalpenak udalaren webgunera igoko dira, eta ez da beharrezkoa deialdi bakoitzari fitxa egitea.

Hirugarrenik, 9.1 artikuluan, ezinbestekoa zen aldaketak egitea; izan ere, 20/2021 Legeak aipatzen du merezimendu profesionalak %60 direla, eta beste merezimendu batzuk %40. Azken hauen artean, 19/2022 Foru Legeak 28 punturekin puntuatzen ditu plazarik gabe gaitutako aurreko deialdiak, eta

*por lo que es esta la ley que debe aplicarse. Advierte que, en caso de dar firmeza a las personas y posteriormente el Tribunal Constitucional diga que efectivamente el proceso es inconstitucional, las Administraciones Públicas tendrán verdaderos problemas a la hora de hacer frente a las indemnizaciones. Ahora bien, es posible que no se dé este supuesto, por haber enormes intereses económicos en juego.*

*Respecto al punto del orden del día, a pesar de que la ley foral a la que se propone adherirse es ampliamente mejorable, en esta sesión se proponen medidas para mejorar su aplicación considerablemente:*

*En primer lugar, se propone excepcionar de la adhesión al artículo 6.2, porque la Ley Foral 19/2022, viene a decir que los Tribunales serán fijados con posterioridad a la publicación de las convocatorias. En el caso de Irurtzun, es sencillo nombrar los Tribunales antes de publicar las convocatorias, de cara a facilitar que cualquier persona aspirante pueda proponer una abstención (o en casos de recusación) de alguna de las personas que lo conforman, además de evitar así dilaciones temporales y funcionales innecesarias.*

*En segundo lugar, se propone un pequeño cambio en el artículo 6.3, según el cual las publicaciones a publicitar se irán subiendo a la web municipal, sin que resulte estrictamente necesario de hacer ficha a cada una de las convocatorias.*

*En tercer lugar, en el artículo 9.1, era imprescindible hacer modificaciones, ya que la Ley 20/2021 habla de valorar con el 60% los méritos profesionales y con 40% otros méritos. Entre estos últimos la Ley Foral 19/2022 puntúa con 28 puntos las convocatorias anteriores aprobadas sin plaza, que en el caso del Ayuntamiento*



Irurtzungo Udalaren kasuan ez dago halakorik. Beraz, puntuatuz gero, ezinezkoa den zerbait baloratzen ariko litzateke. Hala, apartatu hori aldatzen ez bada, ez litzateke beteko merezimendu profesionalak %60 puntuatzeko eta beste merezimendu batzuk %40 puntuatzeko legezko eskakizuna; aitzitik, lehenengo ehunekoa bigarren ehunekoaren kaltetan igoko litzateke.

Beste merezimendu batzuen 40 puntuak, beraz, honela baloratzea proposatzen da:

- 35 eta 40 puntu artean, prestakuntzari.
- 5 puntu gehienez euskara derrigorrezkoak ez diren mailetan jakiteagatik.
- Ingelesko, frantseseko eta alemaneko hizkuntzak kendu dira deialditik, Irurtzunen ez direlako beharrezkoak.

Merezimendu profesionalen 60 puntuei dagokienez, Udal honetan lanpostu berean eta beste administrazio batzuetan lanpostu berean lan egindako urte bakoitzeko puntuazio bera mantentzea proposatzen da, baina Udal honetan beste lanpostu batzuetan lan egindako urteei dagokien puntuazioa kentzea.

9.2 artikuluan, aldatu egin behar izan da izangaien arteko puntuazio - berdinketak ebazteko modua; izan ere, Legeak deialdi batean plazarik gabe gainditu duenaren alde egiten du, eta Irurtzungo deialdietan ez da halakorik gertatzen. Gainerako manuetan jarraitzen den logikari jarraituz, proposamenak berdinketak merezimendu profesionalen arabera ebaztea hobesten du; berdinketak jarraitzen badu, udale honetan lortutako antzintasuna lehenetsiko da; berdinketak jarraitzen badu, euskara gehien dakienaren alde

*de Irurtzun no las hay, por lo que en caso de ser puntuado estaría valorándose un imposible, de manera que de no modificar este apartado no se estaría cumpliendo con la exigencia legal de puntuar con 60% los méritos profesionales y con el 40% otros méritos, sino que el primero de los porcentajes aumentaría en detrimento del segundo.*

*Los 40 puntos de otros méritos, pues, se propone sean valorados de la siguiente manera:*

- *Entre 35 y 40 puntos a la formación.*
- *5 puntos de máximo para el conocimiento de euskera en niveles no preceptivos.*
- *Se han retirado de la convocatoria los idiomas de inglés, francés y alemán porque en Irurtzun no son necesarios.*

*Respecto a los 60 puntos de méritos profesionales, se propone mantener igual la puntuación relativa a los años trabajados en el mismo puesto de trabajo en este Ayuntamiento y en el mismo puesto de trabajo en otras administraciones, pero suprimir la puntuación respecto a los años trabajados en este Ayuntamiento en otros puestos de trabajo.*

*En el artículo 9.2 ha sido necesario modificar la manera de dirimir los empates de puntuación entre personas aspirantes, ya que la Ley se decanta en favor de la persona entre cuyos méritos conste el aprobado sin plaza en alguna convocatoria, supuesto que no se da en las convocatorias de Irurtzun. Siguiendo la lógica que se sigue en el resto de los preceptos, se decanta la propuesta por dirimir los empates atendiendo a los méritos profesionales; de continuar el empate, se priorizará la antigüedad en el Ayuntamiento; de*



ebatziko da, eta berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da.

Alkateak hartu du hitza, eta azpimarratu du proposamen hau legera ahalik eta gehien egokitzen saiatuz egindakoa dela; izan ere, lege hau emanda dago, eta Udalak men egin behar dio, nahiz eta pentsatu legeak bere ibilbide judiziala izango duela.

Jakinarazi du hainbat bilera egin direla Garbiketako Udal Zerbitzuko ordezkari sindikalarekin. Hasierako proposamen bat egin zitzaien langileei, eta, negoziatu ondoren, azaldutakoa izan da emaitza.

Hitzen txanda irekita, Enrique de la Calle jaunak adierazi du ez dutela maniobratzeko tarterik ikusten eta, prozesu horiek zalantza juridiko handiak dituztela jakin arren, ez dutela legearen aurka egingo.

Gaia bozkatu ondoren, **Udalbatzak honako erabaki hauek hartu ditu aho batez:**

LEHENENGOA.- Partzialki atxikitzea Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegu publikoan behin - behinekotasuna murrizteko premia neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze - prozesuak egiteko neurri buruzko uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako erregulazioari, Osoko Bilkura hau prestatzeko gainerako dokumentazioarekin batera jasotako "4.- Adhesión ley foral 19 2002" dokumentuan jasotako terminoetan.

BIGARRENA.- Akordio honen berri ematea gaur egun lan - eskaintza publikoaren xede den lanpostua betetzen ari diren behin - behineko langile kontratatuei,

*continuar el empate, será dirimido en favor de quien más euskera sepa y de continuar aun así el empate, se dirimirá por sorteo.*

*Toma la palabra el Alcalde para recalcar que se hace esta propuesta intentando ajustarse lo máximo posible a la legalidad, ya que esta ley viene dada y el Ayuntamiento está obligado a acatarla, a pesar de la consciencia de que la misma tendrá su propio recorrido judicial.*

*Informa de que ha habido varias reuniones con la representación sindical del Servicio Municipal de Limpieza. Se les hizo una propuesta inicial que, tras negociarla, ha fructuado en lo expuesto.*

*Abierto el turno de palabras, don Enrique de la Calle indica que no ven margen de maniobra y que, a pesar de ser conscientes de que estos procesos presentan serias dudas jurídicas, no van a contradecir la ley.*

**Sometido el asunto a votación, la Corporación, por unanimidad de las personas presentes, adopta los siguientes acuerdos:**

PRIMERO.- *Adherirse parcialmente a la regulación contenida en el Título II de la Ley Foral 19/2022, de 1 de julio, de medidas para la realización de los procesos de estabilización derivados de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, en las Administraciones Públicas de Navarra, en los términos descritos en el documento "4.- Adhesión ley foral 19 2002" recibido junto al resto de documentación de preparación de esta sesión plenaria.*

SEGUNDO.- *Dar traslado del presente Acuerdo al personal eventual contratado que actualmente desempeña el puesto de trabajo objeto de la Oferta*





dagozkion ondorioetarako.

HIRUGARRENA.- Atxikitzeko erabakia Irurtzungo Udalaren webgunean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, nahi izanez gero, errekurtsio hauetakoren bat aurkez daiteke haren aurka:

- a) Berraztertzeko errekurtsioa, egintza eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa Nafarroako Administrazio Auzitegian, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo hilabetearen barruan.
- c) Administrazioarekiko auzi - errekurtsioa, gaiaren arabera eskumena duen organo judizialaren aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

**5.- Urriaren 21eko Alkatetzaren 267/2022 Ebazpenaren berrespena, hala badagokio. Honen bidez, Irurtzungo Musika Eskolako zuzendari berria izendatzen da, aldi baterako ikasketa - buruaren figura sortzen da eta postu horretarako izendapena egiten da.**

Ana Izco Jimenez andreak, Musika Eskolako Zuzendaritza betetzen ari zen pertsonak, instrumentuaren irakastordu kopuruari Zuzendaritzako sei orduak batuta, lanaldi osoa gainditzen zuen. Beraz, Zuzendaritza - figura Eunate Dorai Sala andreari eskualdatzeko erabakia hartu zuten. Hala ere, zuzendari berriak bere eginkizunak betetzeko behar duen esperientzia eskuratu arte behintzat, aurreko zuzendariak sortu berria den figura hartzea erabaki da,

*Pública de Empleo, a los efectos oportunos.*

*TERCERO.- Publicar el acuerdo de adhesión en la web del Ayuntamiento de Irurtzun y en el Boletín Oficial de Navarra.*

*CUARTO.- El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa y contra el mismo se podrá interponer, optativamente, alguno de los siguientes recursos:*

- a) Recurso de Reposición ante el órgano autor del acto en el plazo de un mes, a contar a partir del día siguiente al de la notificación de esta Resolución.*
- b) Recurso de Alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra, dentro del mes siguiente a fecha de notificación de esta Resolución.*
- c) Recurso Contencioso - Administrativo ante el órgano judicial de este orden que sea competente por razón de la materia, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de notificación de esta resolución.*

**5.- Ratificación de la Resolución de Alcaldía 267/2022, de 21 de octubre, por la que se nombra a la nueva Directora de la Escuela de Música de Irurtzun, se crea la figura de Jefatura de Estudios y se hace el nombramiento para la misma, si procede.**

*Doña Ana Izco Jimenez, la persona que venía ejerciendo la Dirección de la Escuela de Música tiene una carga lectiva de instrumento que, junto a las seis horas de Dirección, superaba la jornada completa. Por tanto, tomaron la decisión de traspasar la figura de Dirección a Doña Eunate Dorai Sala. Sin embargo, se ha visto conveniente que, al menos hasta que la nueva Directora adquiriera la experiencia necesaria para desarrollar sus funciones, la anterior Directora, Doña*



Ikasketa Burutza, hain zuzen, Zuzendaritzaren laguntza izan dezan. Horregatik, figura hori aldi baterakoa da, ikusi arte ea posible den aurreko egoerara itzultzea, zuzendaritzako sei orduekin soilik funtzionatzeko.

*Ana Izco, asuma una figura de nueva creación como es la Jefatura de Estudios, para apoyo de Dirección. Esta viene a ser la razón por la que la figura es temporal, hasta ver si es posible regresar a la situación anterior en la que se funcionaba únicamente con las seis horas de Dirección.*

Gaia eztabaidagai jarrita, hitzik hartu gabe, bozkatu egin da, eta **bertaratutako hautetsien aho batez erabaki da:**

*Sometido el asunto a debate sin que se tomen palabras, se procede a votar, siendo el resultado que, **por unanimidad de las presentes, se acuerda:***

LEHENENGOA.- Alkatetzaren 2022/267 Ebazpena berrestea.

*PRIMERO.- Ratificar la Resolución de Alcaldía 267/2022.*

BIGARRENA.- Honako akordioa interesdunari jakinaraztea.

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a las personas interesadas.*

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Udal Kontu - hartzaitzari eta lan - aholkularitzari, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

*TERCERO.- Dar traslado de este acuerdo a la Intervención Municipal y a la asesoría laboral, para su conocimiento y efectos.*

LAUGARRENA.- Honako akordioa argitaratzea.

*CUARTO.- Dar publicidad a este acuerdo.*

## **6.- 2023ko lan egutegiaren hasierako onespena, hala badagokio.**

## **6.- Aprobación del calendario laboral de 2023, si procede.**

Alkateak adierazi du egutegia langileekin adostuta dagoela.

*El Alcalde indica que el calendario está acordado con los trabajadores y las trabajadoras.*

Uztailaren 20an eta 21ean udaletxea ixtea proposatzen da, azaroaren 11 larunbata baita. Aukera libreko 24 opor - egun eta norberaren gauzetarako hiru egun, sei ordu eta 30 minutu geratuko lirateke.

*Los días que se propone cerrar el Ayuntamiento son 20 y 21 de julio, ya que el 11 de noviembre es sábado. Quedarían 24 días de vacaciones de libre elección y tres días, seis horas y 30 minutos de asuntos propios.*

Hitzik hartu ez denez, gaia zuzenean bozkatzeari ekin zaio, eta **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Al no haber tomas de palabra, se somete directamente el asunto a votación y **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- 2023. urterako lan egutegia onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar el calendario laboral de 2023.*



BIGARRENA.- 2023. urterako lan egutegia Nafarroako Aldizkari Ofizialean, udal webgunean eta iragarki oholean argitaratzea, ezaguera publikoa izan dezan.

*SEGUNDO.- Publicar el calendario laboral en el Boletín Oficial de Navarra, en la web municipal y en el tablón de anuncios, para público conocimiento.*

**7.- Irurtzungo Udal Planeko egiturazko aldaketa puntualaren hasierako onespena, hala badaokio.**

**7.- Aprobación inicial de la modificación puntual estructurante del Plan Municipal de Irurtzun, si procede.**

Alkateak azaldu du xedea Irurtzungo Udal Planaren zehaztapan egituratzaileen aldaketa puntuala dela, SGD sistema orokorra birmugatu eta murrizteari buruzkoa eta, horren ondorioz, UE-10 unitatea, autokarabanen eremuan kokatua, berriz mugatzeari buruzkoa.

*El Alcalde explica que el objeto es la modificación puntual de determinaciones estructurantes del Plan Municipal de Irurtzun referido a la redelimitación y reducción del sistema general SGD y redelimitación, como consecuencia de ello, de la unidad UE-10, ubicado en la zona del área de autocaravanas.*

Ezer esan gabe, **gaia bozkatu egin da eta, bertaratutakoek aho batez hartu dituzte honako erabaki hauek:**

*Sin haber tomas de palabras, se somete el asunto a votación y, **por unanimidad de las presentes, se adoptan los siguientes acuerdos:***

LEHENENGOA.- Plan orokorraren aldaketari hasierako onespena ematea. Proiektu honen xedea Irurtzungo Udal Planaren zehaztapan egituratzaileen aldaketa puntuala egitea da, zeinaren arabera SGD sistema orokorra berriz mugatu eta murriztuko baiten eta, horren ondorioz, UE-10 unitatea berriz mugatu eta gaur egun nekazaritza - produktibitate ertaineko lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dagoen lurzoruan sistema orokor berria sortuko baiten, egungo SGDren murrizketa konpentsatzeko.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación del plan general, con el objeto de llevar a cabo la modificación puntual de determinaciones estructurantes del Plan Municipal de Irurtzun referido a la redelimitación y reducción del sistema general SGD y redelimitación, como consecuencia de ello, de la unidad UE-10 y creación de nuevo sistema general en suelo actualmente clasificado como no urbanizable de mediana productividad agrícola, en compensación de la reducción del SGD actual.*

BIGARRENA.- Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, iragarkia NAOn eta Foru Komunitatean argitaratutako egunkarietan argitaratuz, eta espedientea Sakanako Mankomunitatera eta udal teknikarien txostenean ezarritakoaren arabera txostena egin behar duten erakundeetara bidaltzea.

*SEGUNDO.- Someter el expediente a información pública durante el plazo de un mes, mediante publicación del anuncio en el BON y los diarios editados en la Comunidad Foral, y remisión del expediente a la Mancomunidad de Sakana, así como a los organismos que deban informar en virtud de los establecido en el informe de los técnicos municipales.*



HIRUGARRENA.- Jendaurrean jarri ondoren, behin - behinean onartzea, dagozkion aldaketekin, eta espediente osoa Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren arloko Sail eskudunari igortzea, behin betiko onar dezan.

*TERCERO.- A la vista de la información pública aprobarlo provisionalmente, con las modificaciones que procediesen, y remitir el expediente completo al Departamento competente en materia de Ordenación del Territorio y Urbanismo para su aprobación definitiva.*

**8.- Covid-19aren ondorioz herriko merkataritza sustatzeko bonu kanpaina eta honen oinarri arautzaileen onespena, hala badagokio.**

**8.- Aprobación de la campaña de bonos para incentivar el comercio del pueblo como consecuencia del Covid-19 y de sus bases reguladoras, si procede.**

Merkataritza sustatzeko bonu - kanpaina berriro abian jartzea proposatzen da, 2022ko lehen hilabeteetan oraindik ere haren jarduerari eragin zioten murrizketak zeudelako; horregatik, kanpaina hori aurrekontuetan jaso zen.

*Se vuelve a proponer campaña de bonos para incentivar el comercio, porque los primeros meses del año 2022 todavía existían restricciones que afectaron a su actividad, por lo que se recogió esta campaña en presupuestos.*

Kanpainak aurreko kanpainen antzera funtzionatuko du, baina 2.000 bonu beharrean 1.500 izango dira aurtengoan.

*El funcionamiento de la campaña es similar al de las anteriores campañas, pero en lugar de 2.000 bonos habrá 1.500.*

Hitzartzerik egon gabe, **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Sin haber toma de palabras, **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Kanpainaren oinarri arautzaileak onestea.

*PRIMERO.- Aprobar las bases reguladoras de la campaña.*

BIGARRENA.- Kanpaina espedienteen jaso bezala martxan jartzeko onespena ematea.

*SEGUNDO.- Aprobar la puesta en marcha de la campaña tal y como está recogido en expediente.*

**9.- Berrozko udal baratze ekologikoen erabilera eta funtzionamenduaren erregelamenduaren hasierako onespena, hala badagokio.**

**9.- Aprobación inicial del reglamento de uso y funcionamiento de los huertos ecológicos municipales Berroz, si procede.**

Alkateak jakinarazi du araudia Informazio Batzordean azaldu ondoren, Navarra Suma udal - taldeak hiru proposamen hauek egin zituela:

*El Alcalde hace saber que, tras la exposición del reglamento en la Comisión Informativa, desde el grupo municipal de Navarra Suma se hicieron las siguientes*



*tres propuestas:*

Lehenik eta behin, esleipen - irizpideetan genero - ikuspegia kontuan ez hartzea.

*En primer lugar, que en los criterios de adjudicación no se atendiera a la perspectiva de género.*

Bigarrenik, erabilera horretarako urteko aurrekontu - partida bat egoteko beharra kentzea.

*En segundo lugar, retirar la necesidad de que exista una partida presupuestaria anual destinada a este uso.*

Hirugarrenik, proiektu honen jarraipena egiten duten langileak propioak izatea eta ez kontratatuak.

*En tercer lugar, que el personal que haga seguimiento a este proyecto sea propio y no contratado.*

Alkateak adierazi du azken bi proposamenak onartzen direla, baina ez lehenengoa.

*Indica el Alcalde que se aceptan las dos últimas propuestas, no así la primera.*

Hitzartzerik izan gabe, **Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Sin haber toma de palabras, **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Berrozko udal baratze ekologikoen erabilera eta funtzionamenduaren erregelamendua, Navarra Suma udal - taldeak egindako eta EH Bildu udal - taldeak onartutako aldaketak barne hartuz, hasiera batez onestea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente el reglamento de uso y funcionamiento de los huertos ecológicos municipales Berroz, con las modificaciones introducidas por el grupo municipal de Navarra Suma y aceptadas por el grupo municipal de EH Bildu.*

BIGARRENA.- Honako akordioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta argitaratzen den dataren biharamunetik hasita hilabeteko jendaurreko epea irekitzea. Alegaziorik egongo ez balitz, araudia behin betikotasunez onartutzat eman eta bere testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko litzateke.

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra y abrir un periodo de exposición pública de un mes, desde el día siguiente a su publicación. En caso de que no se presenten alegaciones, la ordenanza se entenderá aprobada definitivamente y se procederá a su publicación íntegra en el Boletín Oficial de Navarra.*

**10.- Nafarroako Gobernuaren eta Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren arteko hitzarmenari atxikitzea, hala badagokio.**

**10.- Adhesión al convenio entre Gobierno de Navarra y Fábrica Nacional de Moneda y Timbre, si procede.**

Alkateak azaldu du hitzarmen honi atxikiz administrazioaren funtzionamendu elektronikorako beharrezkoak diren ziurtagiri digitalak doakoak direla.

*Explica el Alcalde que con la adhesión a este convenio los certificados digitales necesarios para el funcionamiento electrónico de la administración resultan gratuitos.*



Gaia eztabaidatu ondoren, ez da hitzik hartu, eta, beraz, zuzenean bozkatu da. **Udalbatzak honako erabaki hauek hartu ditu aho batez:**

LEHENENGOA.- Nafarroako Gobernuaren eta Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren arteko hitzarmenari atxikitzea.

BIGARRENA.- Alkatezari ahalmena ematea, Udalaren izenean, erabaki hau betearazteko beharrezkoak diren egintza eta agiri guztiak sina ditzan.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Nafarroako Gobernuari eta Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalari helaraztea, jakinaren gainean egon daitezten eta ondorioak izan ditzan.

**11.- Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunari buruzko adierazpen instituzionalaren onarpena, hala badagokio.**

Alkateak hartu nahi dituen konpromisoak irakurri ditu:

“GURE GAITZESPENA, emakumeek edozein esparru eta testuingurutan pairatzen dituzten askotariko diskriminazioek eragindako indarkeria matxista mota orori.

GURE KONPROMISOA, Administrazio Publiko garen aldetik, modu aktiboan lanean jarraitzeko desparekotasunen aurka, emakume zein neskatoen aurkako indarkeria-egoeren sorburu baitira, eta horrekin batera gonbit egitea hala gobernuari eta erakunde publikoei nola nazioarteko entitateei eta gizarte zibilari, gogoeta egin eta konpromisoak har

*Sometido el asunto a debate, no hay toma de palabra, por lo que se procede directamente a votación, siendo que **el Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta los siguientes acuerdos:***

*PRIMERO.- Adherirse al convenio entre Gobierno de Navarra y Fábrica Nacional de Moneda y Timbre.*

*SEGUNDO.- Facultar a la Alcaldía para que, en nombre de este Ayuntamiento, suscriba cuantos actos y documentos sean necesarios para la ejecución de este acuerdo.*

*TERCERO.- Trasladar el presente acuerdo a Gobierno de Navarra y a la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre, para su conocimiento y efectos.*

**11.- Aprobación, si procede, de la Declaración Institucional sobre el Día contra la violencia hacia las mujeres.**

*El Alcalde lee los compromisos que se propone adquirir, que son:*

*“NUESTRA REPULSA ante todo tipo de violencia machista producto de las múltiples discriminaciones que sufren las mujeres en cualquier ámbito y contexto.*

*NUESTRO COMPROMISO como Administraciones Públicas a seguir trabajando activamente contra todas las desigualdades que generan violencias contra las mujeres y las niñas, invitando con ello a la reflexión y asunción de compromisos tanto a los gobiernos e instituciones públicas, como a los organismos internacionales y sociedad civil.*



ditzaten.

GURE ELKARTASUNA, eraso edo hil dituzten emakume eta neskatoei, indarkeria sexistari aurre egin behar dioten emakumeei eta haien seme-alabei.

GIZON GUZTIAK PREMIATZEN DITUGU, adin orotakoak, konpromisoak eta jarrera aktiboak har ditzaten, emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurrean.

HERRITAR GUZTIAK GONBIDATU NAHI DITUGU jarrai dezaten emakumeen kontrako indarkeria gaitzesten eta hura deuseztatzeko konpromisoa adierazten, baita patriarkatuaren kontrol mota guztiak eta emakumeei askatasuna eta autonomia erabiltzea eragozten dieten muga eta baldintza guztiak salatzen ere, eta, hartara, azaroaren 25ean antolatzen diren jarduera guztietan parte har dezaten.”

Ez da hitzik hartu, beraz, zuzenean bozkatu da. **Udalbatzak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:**

BAKARRA.- Alkateak adierazitako konpromisoak hartzea.

## **12.- Erregu eta galderak.**

Enrique de la Calle jaunak aurreko Osoko Bilkuran alkateordeak egindako iruzkina aipatu du, zeinetan herriko jaietan taberneak eta gazteentzako lokalek izan zuten irekitzeko ordutegi zabala zela eta bere ezinegona adierazi baitzuen, Gazte Egunean ere gehiegi luzatu dela esateko eta, ondorioz, irekiera - ordutegia murrizteko eperik eman den galdetu du. Alkateak erantzun du ordutegia dagoeneko murriztua izan dela, izan ere, udal jaietan lokalak goizeko 8ak arte irekita egon ziren bitartean, Gazte Egunean 6ak

*NUESTRA SOLIDARIDAD con las mujeres y niñas agredidas o asesinadas, con las mujeres y sus hijas e hijos que enfrentan la violencia sexista.*

*INSTAMOS a todos los hombres, de todas las edades, a asumir compromisos y posiciones activas frente a todo tipo de violencia hacia las mujeres.*

*INVITAMOS A TODA LA CIUDADANÍA a seguir mostrando su rechazo y su compromiso con la erradicación de la violencia contra las mujeres, la denuncia de todas las manifestaciones de control patriarcal y de limitaciones y condicionamientos del ejercicio de la libertad y la autonomía de las mujeres, y a participar en todas las actividades que se organicen en torno al 25 de Noviembre.”*

*No hay toma de palabras, por lo que se pasa directamente a votación. **El Pleno, por unanimidad, ha adoptado el siguiente acuerdo:***

*ÚNICO.- Adoptar los compromisos enunciados por el Alcalde.*

## **12.- Ruegos y Preguntas.**

*Don Enrique de la Calle saca a colación el comentario realizado por el Teniente Alcalde en el anterior Pleno, en el que mostraba su malestar ante el extenso horario de apertura de bares y locales juveniles en las fiestas municipales, para decir que en el Gazte Eguna también se alargó en exceso y preguntar, en consecuencia, si se ha dado algún plazo para reducir el horario de apertura. Responde el Alcalde que el horario de apertura ya ha sido reducido porque, mientras en fiestas municipales se mantuvieron los locales abiertos*



arte baino ez ziren ireki, eta ez da ohiko ordutegia luzatzea San Martin jaietara arte berriro baimenduko.

Enrique de la Calle jaunak saihesbidearen obrak geldiarazteari buruz galdetuz jarraitu du. Alkateak jakinarazi du kosta egin zaiola informazioa lortzea, baina, azkenean, Nafarroako Gobernutik esan diotela obra egiten ari zen enpresa saldu egin dutela. Bestalde, langileek jakinarazi dute hilaren amaieran kaleratuko dituztela. Gobernuak adierazi du, gainera, enpresa esleipendunarekin egindako kontratua deuseztatu arte (horrek dakarren izapidetzearekin) ezin duela beste enpresa batek gauzatu. Alkateak gaineratu du, informazio gehiago lortzen duenean, gainerako zinegotziekin eta Irurtzongo biztanleekin partekatuko duela.

Eta aztertzeke beste gairik ez dagoenez eta iluntzeko 20:10ak direnean, Presidenteak bilera amaitutzat eman du, eta nik, Idazkari naizen aldetik, akta hau jaso eta ZIURTATZEN DUT.

Alkatea / El Alcalde,  
Aitor Larraza Carrera

*hasta las 8 de la mañana, en el Gazte Eguna lo hicieron únicamente hasta las 6, y no volverá a haber autorización para la ampliación del horario habitual hasta fiestas de San Martín.*

*Continua Don Enrique de la Calle preguntando acerca de la paralización de las obras de la variante. El Alcalde informa que le ha costado obtener información pero que, finalmente, desde Gobierno de Navarra le han dicho que la empresa que estaba ejecutando la obra ha sido vendida. Los trabajadores han informado, por su parte, de que van a ser despedidos a final de mes. Desde Gobierno han indicado, además, que hasta que no se rescinda el contrato celebrado con la empresa adjudicataria (con la tramitación que ello conlleva) no puede ser ejecutado por otra empresa. Añade el Alcalde que, cuando obtenga más información, la compartirá con el resto de ediles y con la población de Irurtzun.*

*Y no habiendo más temas que tratar y siendo las 20:10 horas, el Presidente levanta la sesión, de la que extendo el presente Acta que, como Secretaria, CERTIFICO.*

ZIURTATZEN DUT  
Idazkaria / La Secretaria  
Eguzkiñe Aiesa Andres